

# Arlabango tunela «mugarritzat» jo dute Araba eta Gipuzkoa lotzeko

Obraren lehendabiziko harria jarri dute bi herrialdeetako diputatu nagusiek

ERREDAKZIOA - GASTEIZ

AP-1 (Eibar-Gasteiz) autobideko Arlabango tunela Araba eta Gipuzkoa lotzeko «mugarri historikoa» izango dela adierazi zuen atzo Gipuzkoako ahaldu nagusiak, Joxe Joan Gonzalez Txabarrik. Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Arabakoak, Ramon Rabanerak, lehendabiziko harria ipini zioten, atzo, Arlabango tunelaren obrari. Arabako Herri-lan eta Garraio diputatu Javier de Andresen esanetan, «garrantzi handiko obra» bilakatuko da denboraren poderioz Araba eta Gipuzkoarentzat.

Arlabangoa Euskal Herriko tunelik luzeena izango da 3,3 kilometrorekin —2 Gipuzkoako aldean eta 1,3 Arabakoan—. Obra guztiak Gipuzkoako Bidegi agentziak egingo ditu, eta, lanak bukatuta, Arabak ordainduko du dagokion zatia.

## Tunelaren ezaugarriak

Arlabango tuneleko errepideak 7 metroko zabalera izango du, 2,5 metroko kanpoko bazterbidea eta metro bateko barruko bazterbidea; erdibitzaileak, berri-iz, bi metroko zabalera izango du.



**GIPUZKOAKO** eta Arabako ahaldu nagusiek jarri zioten lehendabiziko harria atzo Arlabango tunelari. JUANAN RUIZ / ARGAKZI PRESS

Tunela Arlaban-Eskoriatza tarte osoko ingeniari-tza obra nagusia da. Gonzalez Txabarrik atzo esan zuenez, mendia zulatu eta obrei ekiten zaien unean «ezusterik» ez topatzea espero dute. Lanak hiru urte irautea aurreikusita dago.

Arlaban-Eskoriatza zatia azpiegituraren faserik luzeena da. Autobide osoaren laurden bat da kasik eta 192 milioi euroko aurrekontua du —kopuru osoaren heren bat—. Arlabangoaz gain,

Zarimuzko tunel laburra ere izango du (400 metrokoa). Bestetik, zatiak 1,8 kilometrotik gora izango du zubibideetan: Maringoa (548 metro), Zarimuzkoa (468), Mazmelakoa (404), Uztarretakoa (240) eta Apotzagakoa (160).

Gonzalez Txabarrik atzoko ekitaldia baliatu zuen esateko AP-1eko obra «erakundeen arteko lankidetzaren erakuse» izan dela eta «eraginkortasuna» helburu nagusitzat hartu dutela.